



Karmelo
Etxenagusia
Uribe

1932-2008

BIDeGILEAK

Egilea:

Igone Etxebarria



KARMELO ETXENAGUSIA URIBE

(1932-2008)

Gaztearoa

IURRETAKO SEMEA

Karmelo Etxenagusia Iurretan jaio zen, 1932ko apirilaren 24an, Iurreta Durango-ko auzoa zen garaian, nahiz eta iurretarrek nekez esango zuten durangarrak zirenik. Ertzilibengoa izeneko baserrian bizi izan zen, gurasoak biak Iurretakoak zituela.

Umetan etxean giro euskalduna ezagutu zuen, auzoan eta herrian moduan, orduko urteetan Durangaldean euskara baitzen ohiko hizkuntza bertako jendearen artean. Bost urteko zela, gerra hasi zenean, etxetik irten behar izan zuen familia osoak eta Etxebarrira joan ziren seni-

de batzuenera. Han, Bilbo ondoan egon eta, jatorriz euskaldunak izandakoek ere erdaraz jarduteko ohitura nahikoa zuten, erdarakada eta guzti. Giro horrek eraginda, polito ikasi omen zuen gaztelaniaz Karmelok han egindako egonaldian. Hala eta guztiz ere, Iurretara berriro itzultzean, etxean eta kanpoan herriko lagunekin euskara hutsean ibili eta erdara berriro ere moteldu egin omen zitzaion. Harik eta eskolara hasi arte. Eskolara hasi orduko anaia zaharragoarekin hainbat kontu ikusita zituen, baina eskolara hasi zenean, sei urte eta erdirekin, erdara hutsean egin behar dena.



Ertzillbengoa, Iurreta. Karmeloren jaiotetxea.
Emiliano Zuazoren lauki baten argazkia, 2005



Karmeloren gurasoak, Pedro Santos eta Carmen

Orduan mezak latinez egiten zirenez gero, elizan dotrina euskaraz ikasten zuten, baina ia ezer ez gehiago. Dotrina bietara egiten zuten, elizan euskaraz eta eskolan erdaraz, hainbestearaino berak lotsagarritzat jotzen zuen egoerara helteraino. Etxean egunero egiten zuten arrosarioa gurasoek eta anaia biek, euskaraz, jakina, baina anaia eta bera arrosarioa zuzentzen hasi orduan, erdarara aldatu zuten nahiz eta gurasoek euskaraz erantzun.

Etxetik datorkio euskal herri tradizio-rako zaletasuna, eta baita ezagutza ere, etxean bertan ikasi zuen euskal tradizioaren oinarria. Aita bertsozalea zuen eta, bertsoak botatzen hain ona izan ez arren, sarritan zirikatzen zituen auzoko beste lagun batzuk berarekin nahiz euren artean bertsotan eragiteko. Umortsua zen bera ere, eta gustuko zuen zirikatzen ibiltzea.

Herri kantuak eta ipuinak asko entzuna zen, amari eta amamari. Bera edertzalea izanik, gainera, aparteko sentiberatasuna zeukan hizkuntzaren, kulturaren, naturaren ederra antzeman eta sentiarazteko.

Etxean bizi izandakoa izango zen gerora izango zituen zaletasunak garatzeko oinarria.

Iurretako *aita* san Migelen ordezkaria izan da ibili den leku guztietan, herriaren harrotasuna aldean erabili du beti eta.

Karmelo ikasle ona izan zen, euskararen arloan autodidakta, irakurle amorratua, letretarako sen eta zaletasun gozoduna. Testuetan irudi politak, esangura sugerenteak, berben egokitasuna ikusten eta antzematen zuhurra eta argia zen. Eta ez antzematen bakarrik, hori bizi eta besteei kutsatu egiten zien. Bere eskoletan ibilitako zenbat ikasle ez ote ditu irakurtzen zaletu, eta euskaltzaletasunaren hazia haiengan erein.

Eragilea eta ekina izateak dakar emaitzak ere ugariak izatea. Zarata, ospe eta aitoren handirik barik ibili zen bere ekinean, lana apal eta isilik eginez. Eta ekina okerra denez gero, hor daude emaitzak.

Victoriano anaia eta haren seme-alabekin. Atzean: Victoriano, Eusebi (emaztea), Karmelo, Karmele, Jose Mari Lazkano (senarra), eta Itziar. Aurrean: Karmelo, Izaskun Telleriarte (emaztea), Mikel (Karmele eta Jose Mariren semea) eta Bego. Anaiaren urrezko ezteguak, 2002



Lehenengo jaunartzea





Durangon, San Antonio komentuan, Durangoko kintoen jaia. 2002



Suitzan bi lagunekin, Diego Berguices eta Isidro Larrauri, 1983

Literaturan eta hizkuntza kontuetan bakarrik ez zen edertzalea izan, naturan ere beste hainbeste izan genuen Karmelo. Mendizale aspergaitza, inguruetakoa eta



Lagun batekin

Europako eta atzerrietako mendi askotan ibilia zen, gazte-gaztetan hasi eta azkenean urteetara arte iraun dion zaletasunean.

Astero-astero ibiltzen zen mendiren batera beste abade lagun batzuekin. Nahinon aurkitzen zituen lagunak eta ezagunak ere, eta osterantzean bidean topatzen zituen baserrietan etxekoekin berbaz hasten zen.

Ibiltari handia izan da bidaiari moduan ere. Pastoral zereginak Euskal Herrian nahiz atzerrietan asko ibilarazi zion, baina lekuak ikusteko eta ezagutzeko bidaia asko egin zen.



Idahon, artzainekin, 1998ko ekaina



Afrikan misioetan, Angola, Malanje hiria, 1996-03-10


IKASKETAK

Lehenengo ikasketak herriko eskolan egin eta gero, hamaika urteko mutikoa zela hartu zuen Seminarioan ikasteko bidea. Urte horietan don Domingo Zuluaga ibarrangelutarra zegoen Iurretan abade eta hark zaletu eta bideratu omen zuen abadetzarako.

Bien arteko adiskidetasunak Karmelo hil arte iraun du. Abade-bizitzako une garrantzitsuetan Karmelok alboan izan du don Domingo, kasurako, meza berria esan zuenean edo abadetzaiko urrezko ezteiak ospatu zituenean. Beste horrenbeste alderantziz ere, don Domingok Ibarrangeluko euskara eta herri kulturaz egindako lana argitaratzeko bidean dela eta, Karmelok harako sarrera prestatze-



Gordexolan ikasle, 1943-44. Karmelo zutik, beheengo ilaran, ezkerretik laugarrena



Arteako Seminarioan ikasle, 1944-46. Ikasleetatik, behean, ezkerretik hasita bigarrena

ko ardura zeukan eskuartean heriotzak bat-batean eraman zuenean.

Seminariorako bidea hartuta, lehenengo mailako ikasketak egitera Gordexolara joan zen, berak esaten zuenez, inoiz ize-na ere entzun gabeko herrira, urrun ordu-ko denboretarako. Urte bat (1943-1944) han egin eta hurrengo biak (1944-1946) Artean, Arratian, egin zituen. Herri erdal-duna bata, euskalduna bestea, baina ikas-

tetxe barruan ez zegoen euskararentzako lekurik, ez ikasleen ez irakasleen artean ez zuten euskaraz ezer egiten, euskaldunak asko izan arren.

Goragoko mailako ikasketak Gasteiz-ko Seminarioan egin zituen (1946-1955). Kanpoko hizkuntzak ikasten asko aurre-ratu zuen orduan, latin, greko, frantses, italiera eta ingeles ikasi zituen, lehenengo pausoak behintzat. Euskararik ez, ordea,

Gasteizko Seminarioan, 1949-50. Karmelo, makurtuta, ezkerretik hasita hirugarren. Bere eskuman Jesus Altuna eta ezkerrean Gabriel Mariskal. Atzean, ezkerretik hasita bosgarrena, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina



eskola barruan gutxienez. Hala ere, han ikasle zela, hamasei urte ingurukoa, Santos Teodoro Rekalde durangarrak eskuratu zizkion euskarazko lehenengo irakurgaiak, Zamarriparen lau liburu, bizkaieraz idatziak. Ez zen berak etxean egiten zuen euskara mota bera, baina gehiena irakurtzeko gai zela ikusita, mundu berri bat agertu zitzaion begien aurrean.

Santos Rekalde Iparramerikan euskaldunen artean ibilita, *Deunor, Idahon artzainta euskaldun* nobela idatzi zuen (Zarautz, Itxaropena, 1973). Behin baino gehiagotan esan izan du Karmelok liburu hori berriz argitaratzea komenigarria litzatekeela, eta ingelesez beharbada.

Zamarriparen ostean etorri ziren Lizardiren *Biotz-begietan* eta Orixeren *Euskaldunak*. Euskara landu gabe eta hiztegi askorik gabe, biak ere irakurtzeko gaitzak, baina ikusi zituen Karmelok testuotan irudi ederrak eta esamodu interesgarriak.



Amarekin, 1955eko abuztuaren 15ean, abade egin berritan



Don Domingo Zuluagarekin Karmeloren abatezako
urrezko ezteietan. Andra-gizonak don Domingoren
iloba Mari Karmen Zubietta eta senarra,
Lino Ondarza, dira. Lurreta, 2005

Filosofiako hiru urteak amaituta, Teologia ikasten hasi orduan (1951-1955), ikasleen artean taldetxo bat hasi zen euskara elkarrekin lantzen, pastoral eginkizunetan he-

rri euskaldunetan jardun beharko zutela eta, premiari nola erantzun prestatzeko. Martin Olazar eta Julian Olazabalaga izan ziren zirikatzaileak bizkaitarren artean, Txomin Artetxek ere egin zuen ahalegina. Hiru abade-lagunok eragin zioten Karmelori bere euskaltzaletasunean eta agerian aitortu izan die berak esker ona.

Ikasketak amaitu orduan etorri zitzaion abade egiteko unea. 1955ean izan zen hori, San Pedro egunean, eta tokia Begoñako Basilika. Meza berria, aldiz, herrian, Iurretan, Seminariorako bidea egin zion abadearekin. Don Domingo Zuluagak egin zion meza berriko hitzaldia.

Ikasketen ibilbideari jarraituz, abade egin ondoren Derioko Seminarioan hiru urte irakasle eginda, gotzainak gehiagorako nahi zuela eta, Comillasera agindu zuen *Jus Canonikum* edo Zuzenbide Kanonikoa ikastera. Ikasturte bi (1958-1960) egin zituen Comillaseko Unibertsitatean titulu berria lortzeko ikasten, eta ondoren berriro ere Derioko Seminario-ra irakasle.



Aita Luis Villasanterekin, Euskaltzaindiaren egoitzaren ondoan. Bilboko Plaza Barria

Karmeloren bi zutabeak: eliza eta euskal kultura

ABADE IBILBIDEA

Abade egin berritan, lehenengo destinoa Lanestosara jarri zioten, baina hogeit egun baino ez zituen egin han, berehala deitu zioten Derioko Seminario Txikira hezitzaile eta irakasle izateko, eta hor eman zituen 1955etik 1960ra bitarteko urteak.

Seminario Txikian latina, gaztelania, literatura eta solfeoa irakatsi zituen. Ez zen euskararik irakasten orduan han, baina Seminario Nagusian bai. Aurretik bide apurren bat eginda zegoela, irakasle hasi zen bera ere, baina lehendik euskaldunak ziren ikasleei bakarrik eskolak emateko.

Ez zegoenez gramatika ez metodo askorik zeri jarraitu, eskoletan euskarazko testuak irakurri eta aztertu eta norberak idazlanak egin eta zuzendu egiten zuten. Metodologia horren emaitza gisa, ordukoa da *Lagunarteko Meza Orienteko Kristiñauen eraz* (Delegación Misional Diocesana, Bilbao, 1959) lana, Karmelok eta beste abadegai ikasle batzuek euskaratua. Derioko Seminarioan abade batek, Francisco Ballester Viuk, baimena zeukan meza Ekialdeko liturgiari jarraituz emateko, eta ia egunero hala ematen zuen. Liturgiako testua euskaratu zutenean, Jose Antonio Retolazak eskatuta, Arrazolan eman zuen Ballesterrek meza hori euskaraz lehenengoz. Kontuan hartuta Vatikanoko II. Kontzi-



Santurtzi, Karmengo Amaren jaia, 1996



Begoña, 1995eko azaroaren 9an, gotzain egiteko egunean. Euskal Herriko gotzainak: Miguel Asurmendi (Gasteiz), Ricardo Blazquez (Bilbo), Fernando Sebastian (Iruñea), Karmelo Etxenagusia eta Jose Maria Setien (Donostia)

lioia ez egin ez iragarri gabe zegoela, mezak latinez egiten ziren garaian, euskarazko lehenengo meza hori izango zen.

Comillasen Zuzenbide Kanokikoa ikasten urte bi eman eta ostean, Derioko

Seminario Nagusira itzuli zen 1960an, arduradun eta irakasle. «Jus Publicum Ecclesiasticum» ikasgaia eta euskara irakatsi zituen garai horretan.

Irakasle zela, Gotzaindegian kantziler izan zen 1968tik aurrera, lan eta ardura biak aldi berean betetzen zituela. Kantzileria gotzainaren eskribau eta aholku-emaila hurkoa da, agiri eta txosten berezienak berak egiten ditu gotzainarentzat.

Harrezkero hainbat ardura bete zituen Bilboko gotzaindegian. 1968an, kasurako, Gurrupide gotzaina hil zenean, Cirardaren gobernu-taldean sartu zen garaia latza zenean. Giro politikoa gordina zen urte haietan, eta elizbarrutian bertan abadeak zatituta zeuden. Cirardaren ostean, Añoveros gotzainaren gobernu-taldean parte hartu zuen. Orduan ere une larriak bizi izan zituzten, eta *Añoveros kasua* deritzana zela eta, presio handiak jasan zituen Karmelok, Francoren gobernu gotzaina atzerriratzeko prest egon baitzen.

Haren ondoren Luis Maria Larrea etorri zen gotzaindegiko buru, eta hark bikario nagusi izendatu zuen 1980 urtean.



Gotzain egiteko ospakizuneko liburua



Abadetzaiko urrezko ezteiak, 1955-2005. Donostiako Seminarioa, 2005eko apirila

Aldi hori amaitzean, urte sabatikoa hartu zuen, ordura arteko arduetatik aldendu eta atsedean apur bat hartu guran. Urte hori Erroman eman zuen Teologian eguneratzeko ikasketak egiten. Oroitzapen ona zuen berak urte horretaz, ikaskide gazteekin, Erroma eta Italiako parajeak ikusten ibili zen eta.

Handik itzultzean, Begoñako Basilikan parroko jarri zuten 1990ean, harik eta 1995ean gotzain laguntzaile izendatu zuten arte, Ricardo Blazquez gotzain jarri zutenean. Blazquezek Bizkaiko herrietako apaizekin eta jendearekin harremanak izateko hutsunea izango zuelakoan,



Bilbon, zirkuko feriantekin meza

bai hizkuntzaren aldetik euskararik ez zekielako, bai osterantzeko ezaugarri eta jakingarri batzuen aldetik, Karmelo laguntzaile izendatu zuten batzuen eta bes-



Belokeko elizaren inaugurazioan, 1975eko irailaren 7an. Ezkerretik hasita, Lino Akesolo, Mikel Zarate, Jose Mari Rementeria, Karmelo Etxenagusia, Roger Etchegaray, Mauro Elizondo (O.S.B.)

tearen arteko zubi edo lotura egiteko. Bai egin ere; elizbarruti osoan herririk herri ibiltzea egokitu zitzaion eta bertatik bertara leku bakoitzeko egoerak eta berezitasunak ezagutzea ere. Bere estiloan, beti apal, umoretsu, ahotsik gehiegi altxatu gabe, eta irtenkeriarik gabe makinatxo bat lan egindakoa da.

Kargu horretan egon zen 2007ra arte, 75 urte betetzean karguari uzteko eskaria egin baitzuen. 2008ko apirilaren 4an egin zion agur gotzaindegiari, lagun arteko ekitaldi batean lehenengo, eta Begoñako basilikan mezan gero, biak egun berean. Lontzo Zugazaga adiskideak bertso batzuk egin zizkion agur egiteko egun horretan. Hona bertsook:

KARMELOREN AGURRA BEGOÑAN

Eskerrik asko, guztion partez
bihotzez Karmelo zuri
babes sendoa emon deutzazu
apalik On Ricardori
Bizkai osoa zeharkaturik
Jaun onaren zerbitzari
Barri onaren bakez ta pozez
beti batasun gidari
gerora ere lagun bekizu
Begoñako Andra Mari.

Harrezkero Berrizera erretiratu zen, medeetako mojen komentura. Asmo eta lan asko egiteko gogoia zuen, baina ezer ateratzeko astirik gabe eraman zuen gaitxoak urte bereko azaroaren 6an.

EUSKALTZALE

Ipuinak, bertsoak, herri kantuak etxean entzun eta ikasiak zituen Karmelok txiki-txikitatik. Bere liburuan Gabonetan Abendu kantetan etxerik etxe ibiltzen ziren gazte taldeak eta urteberriko kantuak gogoratzen ditu.

Iurretakoa izanda ezpata-dantzan ere jakingo zuen, ikusia gutxienez izango zen.



Seminarioko dantzari taldea, seminario gaineko terrazan. Atzean hiru irakasleak abade jantzita: Juan Mari Uriarte, Karmelo Etxenagusia eta Jose Antonio Retolaza. 1956-57 ikasturtea

Horregatik, Derioko Seminaria bidali zutenean abade egin berritan, hurrengo ikasturtean Seminaria sartuko ziren ikasleak udako egonaldia egin zuten Derion bertan. Han mutiko batzuek ezpata-dantzan zekitela entzun eta egiteko esan zien. Lontzo Zugazagak berak abestu eta dantzan egin zuen irakaslearen aurrean. Hurrengo urteetan Seminarioko ikasleek dantza taldea osatu zuten, ikastetxearen gaineko terrazan egiten zituzten saioak, gero eta dantza-errepertorio handiagoarekin. Bizkaiko dantzetatik hasi eta ekialderantz, Zuberoakoetaraino egiten zituzten, Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait dantza tarteko zirela. Aldi horretan Jose Antonio Reto-

laza (geroago *Kili-Kili* sortu eta hainbeste urtez zuzendu zuena) eta Juan Mari Uriarte (Donostiako gotzaina) sartu ziren ikasle, eta dantzarien ardura hartu zuten, taldeburu eginez.

Euskarazko lehenengo liburuak Seminarioan ikasle zela irakurri zituen. Autodidakta izan dela esan daiteke, euskaraz idatzitako literatura, eskuratu ahala, bere kautan irakurriz ikasia. Teologiako ikasle zela, Kristoren berri ona herrian euskaraz zabaltzeko beharko zutela eta, beste ikaskide batzuekin batera euskara lantzen hasi ziren.

Orduan eskuratu zuen Orixeren *Eguneroko meza-bezperak* liburua, bere esanetan



Derioko Udako Euskal Ikastaroaren ekitaldi akademikoa, 1980

euskararako bizi guztian mesederik gehien egin zion liburua. Egunero-egunero ordu erdi euskaraz irakurtzea, hasieran ulertzen gaitza izan arren, ohitura ona da hizkuntza hori lantzeko. Eta ez hori bakarrik, horren

eraginez, bere otoitz eta barru munduko gogoetak euskaraz egiten orduan hasi zela esanda dauka Karmelok.

Seminario Nagusian euskarazko eskolak ematen hasi zenean gramatika eta metodorik ez zeukaten, apurka-apurka liburu batzuk eskuratzen joan ziren eta horiekin konpondu behar.

Derioko Seminarioan euskara-irakasle zela, Julian Olazabalagak zortzi eguneko ikastaroa eratu behar luketela esan, eta Karmelo eta Mikel Zarate irakasle hartuta, elizgizon eta emakumeentzako ikastaroa eratu zuen Ander Manterolak. Horixe izan zen lehenengo Derioko Udako Euskal Ikastaroa, gerora jende mota guztientzat zabaldu zena.

Esperientzia horretan bitarteko falta zen nabariena, baina eskuratu zituen apurretan, argi ikusi zuen euskara lantzeko egokiena zela literatur testu ederrak irakurri eta lantzea, eder mundua euskaraz gozatzeko. Horretarako hasi zen testu irakurterrazak eta atseginak bilatzen. Lehenengo aukera Kirikiñoren testuena izan zen, atsegin-umoretsua izateaz gainera,



Euskaltzain lagunekin: Emile Larre, Karmelo, Jose Maria Satrustegi, Antonio Zavala

hizkuntza aldetik baliabide asko eta aberastasun handikoa zelako, hizkuntza lantzeko bidea erraz ematen zuena. Horren atzetik beste batzuk etorri ziren, pilotxoa osotuz apurka-apurka. Ikasleentzat atondutako apunteok, gerora, euskal idazleen lorategi bihurtu zituen.

Derioko Udako Ikastaroan hasiera-hasieratik ibili zen irakasle. Zenbat eta ikasle gehiago inguratu ikastarora, irakasleak ere ugaritu egin ziren, baina Karmelo denen maisu izan zen. Hogei urtez jardun zuen eskolak ematen, era guztietako gaiak irakasten, baina gehien-gehien literatura izan zuen irakasgai, Bizkaiko idazleak lehenengo, Gipuzkoakoak gero eta Iparraldekoak azkenik. Eskolak eman ahala materiala sortzen joan zen, eta hortik egoitu zituen Lorategiak edo Antologiak.

Irakasle moduan gaitasunik handiena edertasuna igartzen eta transmititzen jakitea zuen. Testuei gozotasuna ikusarazten zen trebea, kantuz ematekoak kantuz gainera. Askok haren eskoletan ikasi ditugu kantuan Iparraldeko baladak (*Be-reterretxeren kantorea*, *Brodatzen ari nintzen*, *Goizean goizik...*), pastoraletako

estrofak, Elizanburu, Oxobi eta Etxahunen bertsoak...

1965eko irailaren 24an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle egin zuen eta ohorezko 1998ko apirilaren 24an. Harreman ez estu-estua baina ona izan zuen Euskaltzaindiarekin. Hainbat batzarretan parte hartu zuen eta euskararen onerako ziren ekitaldietan ez zeukan erreparorik laguntzeko. 1968an Euskaltzaindiak Arantzazun euskara batua arautzeko egin zuen batzarrean egon zen, kasurako.

Lorategiak egin bitartean hainbat idazle eta euskal kulturako aitzindariarekin egin zuen harremana: Aita Lino Akesolo, Nikolas Alzola, Aita Justo Mari Mokoroa, Juan San Martinekin. Baita beste batzuekin ere: Aita Santi Onaindia, Jaime Kerejeta, Eusebio Erkiaga, Xabier Peña, Augustin Zubikararekin.

Aldi hartan euskaraz argitaratzen zena irakurtzeko ahalegina egiten zuen, kopuruz hainbeste ere ez zen eta.

Jose Antonio Montianok deituta, euskarazko eskolak eman zituen Euskerazaleak elkartearen hainbat urtetan Bilbon.



Euskera - Castellano
Castellano - Euskera

Dialectos vizcaino y guipuzcoano



ACADEMIA MONTIANO

Karmelo
eta euskara



Jose Antonio Montianoren *Ikas* hiztegia
egiten parte hartu zuen

KARMELO IDAZLE

Karmelo irakasle ibili zen urteetan, latin eta beste hizkuntzak ikasteko ohikoak ziren *Florilegio* eta antzeko izeneko liburuak eskoletan erabiltzeko. Halakoak testu antologiak ziren, idazle handien testu-zati aukeratuak, idazleon eta hizkuntza horretan idatzitako txatal adierazgarrien erakusgarri. Euskara irakasteko ere testu egokiak lantzea gramatikak baino hobea zela iritzita, gure idazleen artean aukerak egin zituen Karmelok ikasleei testu atsegin eta eredugarriak banatzeko. Apunteon ondorengo dira haren liburuak.

Lehenengo *Euskal Idazleen Lorategia itz lauz: I. Bizkaieraz* 1965ean prestatu zuen. Ikasle euskaldunak zituen eskoletan, baina ikasleok Bizkaikoak zirenez gero, bizkaieraz idatzitako testuak prestatu zituen, errazago ulertzeko eta lehenengo pausoak egiteko egokiago zelakoan. Lorategi horretan idazle bakoitzaren gainean sarrreratxo bat dakar, haren berri laburtzua emanaz. Lehenengo lorategian azalpenok gaztelaniaz daude, orduan oraindik euskarazko gaia gaztelaniaz irakasten zen eta.

Hurrengo pausoa *Euskal Idazleen Lorategia itz lauz: II. Gipuzkeraz* argitaratzea izan zen, 1967an. Honako ere prosaz ida-



Bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzi duten idazleen lorategiak egin ondoren, biek bat berreginda atera zuen

tzitako testuak aukeratu zituen, baina gipuzkeraz idatziak, eta idazleei buruzko sarreratxoak ordurako euskaraz jarrita.

Bi horien batuketa da hirugarrena, *Euskal Idazleen Lorategia (Itz lauz)*, Donostian 1969an argitaratua. Aurreko bien onura ikusita, handik eta hemendik eskatu zioten Karmelori lan orokor bat egiteko, alfabetatze-kanpainak indarra hartzen zihoazen garaia zen eta, halakoen premia handia zegoelako. Hala atera zen Lorategi hori, aurreko bietako materialak baliatuta.

Hasieran prosa lantzea erabaki zuen, poesiarako Aita Santi Onaindiaren *Mila eus-*

kal olerki eder liburua bazegoela eta. Hala eta guztiz ere, Seminarioko eskoletarako hainbat gai hartu eta haien gaineko poesiak batu zituen ikasleei banatzeko. Hori, ordea, ez zen inoiz argitaratu.

Euskal literatura irakasteko, Orixeren «Euskal literaturaren atze edo kondaira laburra», *Euskal Esnalea* aldizkarian atal-ka argitaratu zena, makinaz jo eta ikasleei banatu zien polikopiaz. Eredu horri jarraituz edo, berak «Bizkaierako elerti (literaturaren) atze edo edesti laburra» idatzi zuen, hori ere ikasleei banatzeko.

Euskerazaleak elkartean, Jose Antonio Montianok eskatuta, *Ikas* hiztegiaren

euskarazko atala berak eta Xabier Peñak atondua da. Asko erabili izan zen hiztegi hori urte batzuetan, oinarri-oinarrizkoa izan arren, edo horregatik.



Derioko Udako Euskal Ikastaroan Bizkai-ko idazleen testuak erakusten urte batzuk eman ondoren, *Euskal idazleak bizkaieraz* izeneko liburua argitaratu zuen 1980an, Jon Kortazar eta Aitor Etxebarria berare-

kin batera egile ageri direla. Testuak eta idazleen gaineko oharra ez ezik, liburu honetan ariketak eta azterbideak ere badatoz. Denak dira bizkaieraz idatzi duten idazleak, eta aukeratutako testuak berriak, aurreko lorategietan atera gabeak. Herri literaturak ere bere lekua dauka liburuan.

Aldi batez gipuzkeraz idatzi zuten idazleen gaia ere irakatsi zuen, baina ez anto-




Idazleekin lotura estua izan zuen. Eusebio Erkiaga, Jaime Kerexeta eta Piarres Xarritonekin, Labayru Ikastegiak eratutako zenbait ekitalditan



Beste bi antologia egin zituen,
Bizkaiko eta Iparraldeko idazleenak

logia bat eratzeko beste denboran. Hortik Iparraldeko literatura irakasten jarri zuten, eta horretan bai prestatu zuen beste lan bat, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, 1981ean lehenengoz eta 1988an bigarrenez argitaratua.

Lan horiek ez ezik artikulua ere idatzi zituen *Redención, Zer, Euskerazaintza* aldizkarietan, eliz liburuak eta euskarazko sorkuntzako argitalpenak gai hartuta batzuetan, beste pasarte eta gogoeta mota batzuk besteetan. Idazle asko ezagutu zituen, harreman zuzena izan zuen haie-tariko askorekin, kasurako, Jaime Kere-xeta, Pedro Pujana, Eusebio Erkiaga,



Sorkuntzako emaitza bakarra du liburu hau, autobiografia, euskara ardatz hartuta

Lino Akesolo. Idazle lanen zabalkun-derako hauspoa izan zen, baita gehiago idazten jarraitu zezaten akuilua ere.

Karmelo bera ez zen idazle moduan na-barmendu, sorkuntzako idazle moduan behintzat. Hala ere, hitzaldi, aurkezpen eta jendaurreko agerraldietarako idatziz prestatzen zuen esan beharrekoea. Hori bai, beti *esateko* moduan. Hizlari, berba-lagun atseгина zen, euskara gozatsua era-biltzen zuena. Bertsotan ere behin baino



Liburuaren aurkezpena, Bilbo, 2003-12-18. Igone Etxebarria, Gorka Martinez, Karmelo Etxenagusia, Andoni Gerrikaetxebarria, Jokin Gorozika

gehiagotan egin zuen agur, zorionak eta osterantzekoak opatzeko egoeretan.

Horregatik, *Euskerea nire bizitzan* (Labayru Ikastegia, Bilbo, 2003) liburua atondu zuenean, izen bera daukan hasierako zatian, euskararen inguruan bizitzan zehar egindako ibilbidea azaltzeko, elkarrizketaren itxurari heldu zion. Berak argitzen du hasieran Ander Manterolak egindako elkarrizketaren itxura eman diola bere jardunari, zeinda berbaz ibiliko balitz moduan. Hor dabil bera erosoan.

Bizkaieraz idatzitako testurik onenak batu beharko balira gaur egun, liburu horren hori atalori zalantzarik gabe sartu beharko litzateke. Hor ikusten da argi Karmeloren dohaina berbaz, eta buruak etxeko euskararen jarduten duela. Berbazko elkarrizketaren antzera eginda egon arren, hori baino jantziagoa eta dotoreagoa da, baina argibide asko ematen dituen azalean eta mamian.

Hasierako atala berriren berriz idatzi zuen hor argitaratzeko. Liburua osatzen du-

ten gainerako idatziak lehenago han-hor-hemen idatzi, esan eta irakurriak dira. Batzuk aldizkarietan argitaratuak, beste batzuk ahoz esateko prestatuak hitzaldi, omenaldi zein elizkizunen batean. Liburuan ez ziren zeuzkan guztiak sartu, erakusgarri batzuk baino, euskal gaien eta erlijio gaien erakusgarriak.

LITURGIA EUSKARAZ JARTZEN

Vatikanoko II. Kontzilioan 1965ean erabaki zen Jesusen berri ona herri bakoitzak bere hizkuntzan zabaltzea, eta ez ordura arte moduan, latinez. Hori zela eta, liturgia osoa egokitu behar izan zen. Euskaraz lehendik bazeuden liburu batzuk euskaratuta, kasurako Jaime Kereketak *Eguneroko Meza* (1963) egina zuen eta Orixek *Urte guziko Meza-bezperak* (1950). Lehenengo pausua horiek erabiltzea izan bazen ere, Bilboko Gortzaindegia talde bat eratu zuen, Aita Lino Akesolo buru zela, meza emateko testuak euskaratzeko. Horretan parte hartu zuen Karmelok, Mikel Zaratek eta beste abade askok bezala. Hortik ate-



Elizbarruti arteko liturgi taldearen batzarra

ra zen *Mezaren egunerokoa* (1970), Bizkaian erabiltzeko.

Hasieran Elizbarruti bakoitzak bere aldetik jo zuen, baina laster jarri ziren denak elkarrekin lanean, Euskal Herri guztiko ordezkarien artean, Baiona, Iruñea, Gasteiz, Donostia eta Bilboko elizbarrutietako ordezkariak. Izan ere, Erromak hizkuntza bakoitzean batasuna eskatzen zuen, Vatikanoko II. Kontzilioak eraba-



Meza-liburuak euskaraz

kia zen hizkuntza bakoitzeko itzulpen baka-
 karra izatea. Zuzendaria Manuel Lekuona
 zen eta idazkaria Jesus Gaztañaga. Lurralde
 guztietako abadeek osotutako taldeak
 liturgia euskaratu zuen. Denentzat testu
 bakarra egitea zen helburua, eta hala egin
 zuten gutxienez herriak ikasi eta kantatu
 beharrekoetan. Irakurgaietan malguago
 jokatu zuten, eta bakoitzak bere euskalki-
 ra hurreratzeko aukera gorde zuten. Lan
 horren emaitza izan ziren meza-liburu na-
 gusi bi: *Altarako liburua* eta *Irakurgaiak*.

Lan-talde horretan ibilitakoek Karmelo
 talde-lanerako oso egokia zela azpimarra-

tu izan dute, denen artean forma baka-
 rra aukeratu behar izateak eragiten dituen
 tentsio-uneetan giroa baketzeko oso ona
 omen zen.

Hizkuntzaren aldetik, itzulpenaren natu-
 raltasunari erreparatzen zion gehien bat,
 eta ez hainbeste jatorrizkoari ondo lotuta
 egoteari. Testuok askotan aipatu izan dira
 batasunaren, batasun hori askoren arteko
 sintesi moduan ulertuta, emaitzarik one-
 netakotzat eta eredugarritzat. Eta baita
 entzuteko egindako testu moduan ere,
 itzulpena prestatzen ibili zirenek gogoan
 hartu zutelako beti herriak entzun egingo

Liturgi itzultzaileen
taldekoak Erroman, San
Pedro plazan, 1971n.
Ezkerretik hasita,
Bizente Hernandorena (N),
Karmelo Etxenagusia (B),
Pedro Mari Zabalza (N),
Mixel Idiart (L),
Miguel Azpiroz (N),
Piarres Xarriton (L) eta
Jesus Gaztañaga (G)



Urrezko Luma saria,
Bilbo, 2003-06-02.
Lontzo Zugazaga,
Koldo Narvaiza, Karmelo
Etxenagusia, Asier Muniategi





zuela, eta ez irakurri. Horretan egindako ekarpena askok goratu izan dute, eta Karmeloren ukitua ez da horretan taldekideen artean azkena.

SARI ETA OMENALDIAK

Derioko Udako Euskal Ikastaroak 1989ko uztailaren 14an, Ikastaroaren hogeigarren urteurrena ospatzean, Karmelo omendu zuen hogeitau urteotan hutsik egin barik irakaskuntzan jardutearren, eta denbora horretako ibilbidearen erakusgarri zelako. Ikastaro horretatik igarotako ikasle eta irakasle guztion maisu izan zen aldi horretan. Berak sortutako material eta programekin irakasten zen euskal literatura, eta erreferentzia izan zen euskara kontuetan beste guztientzat.

Labayru Ikastegiak ohorezko laguntzaile egin zuen 1993an. Ikastegiaren sorreratik bertatik lotura estua izan zuen Karmelok erakundearekin eta hainbat urtetan zuzendari izan den Ander Manterolarekin. Horregatik, laguntzaileen urteko batzarretan, ekitaldi akademiko nahiz Labayru Ikastegiak eratutako ospakizunetan parte hartu ohi zuen eta baita ekintzok babestu ere.

EIZIE Itzultzaile eta Interpretarien Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen 2002an, beste batzuekin batera, liturgiako testuak itzultzen egindako ekarpenarengatik.

Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma saria eman zion 2003ko ekainaren 2an. Sari horren bitartez, literaturaren alorrean egindako lana aitortu zioten. Esan dugu ez dela idazle oparoa izan, sorkuntza aldetik ulertzen den moduan behintzat. Baina kontuan hartu zioten idazleekin, irakaskuntzan eta bere materialen bitartez literaturari ekarritako onura, irakurtzeko zaletasuna suspertzeko eta literaturaren bitartez euskal hizkuntzaz eta kulturaz jabetzeko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaritik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Karmeloren senideei, Bego Etxenagusiaren bitartez
- Labayru Ikastegiari
- Lontzo Zugazagari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko abuztua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2983-0 (Lan osoarena) 978-84-457-2985-4
L.G.:	BI - 2283-09

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco